

## 26. INFORMAZIO FITXA PR BI 161. ARTADIAREN ERDI-ERDIAN (AKORDA-ATXARREKO SAN PEDRO)

### KOKALEKUA

**Udalerrria**

Ibarrangelu

**Udalerrriaren kod.**

048

**Eskualdea**

Gernika-Bermeo

**Kartografia**

Bizkaiko Foru Aldundia (1:5.000)

**Orriak**

03837

03845

### FITXA TEKNIKOA

**Homologatua**

BAI

**Gutxi gorabeherako denbora**

45 minutu

**Gehieneko desnibela (m)**

140

**Luzera (km)**

2,4

**Zailtasuna**

Erraza

**Trazatu mota**

Lineala

**Ibilbidearen hasiera**

Akorda


**Ibilbidearen amaiera**

Atxarreko San Pedro

**Interesa**

Kultura, natura eta paisaia

**Ibilbidearen profila**



Sustatzailea:

Lurralde Azterlanetarako Bizkaiko Iraskundeak


Kontsultorea:

NK gestión ambiental y cultural S.L.

Urtea:

2005

**Mapa/Krokisa**



### **Nola Iritsi**

Bilbotik A-8 autobidea hartuko dugu Amorebietako irteeraraino, eta bertatik Gernikara abiatuko gara, Autzagane gainetik; Gernikatik Lekeitiora hartuko dugu. BI 2237 errepidetik Ibarrangelura iritsiko gara eta, bertan, ezkerretara hartuko dugu, BI 4236 errepidetik, Akorda auzora iristeko.

### **Deskribapena**

Ibilbide labur hau erabiltzailerik gehienekoa da eskualde osoan. Izan ere, Urdaibaiko ingururik ederrenetariko bat erakutsiko digu. Ibilbidea egitean, bertako bi ekosistema nagusietan sartuko gara, artadi kantabriarrear eta landazabal atlantikoan, eta gainera, ikuspegi panoramiko bikainak izango ditugu.

Ibilbidea Ibarrangeluko plazan hasten da. Lehenengo zatia errepidetik egin ondoren, Garteiz auzora joateko bidegurutzea hartuko dugu. Bidegurutze horretan norabideko seinalea dago eta, bertan, Atxarrerren gailurrera heltzeko egin behar den distantzia dago adierazita. Ezkerretara hartu eta auzo-bide honetatik joango gara, lehenengo bihurgunera iritsi arte. Bertan, errepidea utzi, aurrerantz joan eta artadian sartuko gara. Hala ere, lehenengo eta behin, auzoaren eta Atxarre mendiaren nahiz San Pedro baselizaren (gailurrean) ikuspegi bikainaz gozatuko dugu.

Bi kasuetan ere aurrez jarraituko dugu. Azken zati honetan, malda handiagoa da, baina esfortzua konpentsaturik geldituko da gailurrera iristean. Izan ere, Mundakako itsasadarraren estuarioaren ikuspegi ederrenetarikoa San Pedrotik dago. Baselizaren ondoan har dezakegu atseden, Akordarako bidea osteratu baino lehen.

## IBILBIDEAREN EZAUGARRIAK

### Trazatua

Ibilbidearen zati handia lurrezko eta kareharrizko bidezidor batetik egiten da eta horrek Atzarreko artadi osoa zeharkatzen du. Hala eta guztiz ere, lehenengo zatian Akorda Garteizekin lotzen duen asfaltozko errepidetik joango gara.

### Gurpil-aulkietarako gauza

Ez

### Norabideko seinaleztapena

Ibilbidea PRren seinale eta gezi batekin seinaleztaturik dago, eta Dantzalekuraino GR 98 (Urdaibaiko itzulia) seinaleekin.

### Informazioko seinaleztapena

Eskoletatik eta jolasetarako zona berriaren ondoan, GR 98 bideari buruzko informazio panela aurkituko dugu. Artadiko floraren barruko espezie nagusiei buruzko informazio zutoina ere badago.

## ARGAZKIAK

Ibilbidearen norabideko seinaleztapena.



GR 98 bidearen informazio panela. Akorda auzoan dago, hurren jolasen ondoan.





Sustatzailea:

Lurralde Azterlanetarako Bizkaiko Iraskundea

Kontsultorea:

NK gestión ambiental y cultural S.L.

Urtea:

2005

**Ikuspegia Atxarreko San Pedrotik. Urdaibaiko itsasadarraren estuarioa.**



**Ikuspegia Atxarreko San Pedrotik. Bokalea.**



**Izaro uhartea.**



Sustatzailea:

Lurralde Azterlanetarako Bizkaiko Iraskundea

Kontsultorea:

NK gestión ambiental y cultural S.L.

Urtea:

2005

**Akordatik eta Kanalatik igotzen diren bidezidorrek bat egiteko lekuan dagoen bidegurutzean instalaturiko norabideko seinaleztapena.**



---

**Akorda auzoa.**



---

**Bidezidorrak Atzarreko artadi kantabiarretik.**



Sustatzailea:

*Lurralde Azterlanetarako Bizkaiko Iraskundea*

Kontsultorea:

*NK gestión ambiental y cultural S.L.*

Urtea:

2005

**Gurbitzaren fruitua. Artadiko espezie nagusienetarikoa.**



## BALIABIDEAK

### Atxarreko San Pedro

Esan daiteke berezia dela, baina batez ere ezarkuntzaren eta historiaren eraginez, eraikinagatik berarengatik baino gehiago. Antzina-antzinatik erromeriak egin dira basilizaren inguruan. Eliztarrak San Gregorio egunean igotzen ziren, gatza bedeinkatzeko, eta hori gero ontzien bizkarrean botatzen zuten, arrantzan zorte hobea edukitzeko. Uzta onak lortzeko, tradizioak dioenez, ereintzaren eta hurritzen adarrak bedeinkatu behar dira; horiekin, gero, gurutzeak egin eta soroetan jartzen zituzten. Gaur egun, kontserbazio egoera oso onean dago, orain dela urte batzuk berriro egin baitzuten.



### Graziaren Andre Maria eliza

XVI. mendeko tenplu xumea da eta haizemaile itxurako sarbidea dauka. 1800ean birmoldaketa handia egin zen, Alexo de Mirandak egindako proiektuaren arabera, eta hormetan barruko bularrak jarri ziren, alboko kaperak balira bezala.



### Akorda auzoko antzinako eskolak

Bizkaiko beste auzo batzuetako eskolen kasuan bezala, eskola hau 1919ko azaroaren 26an aurkezturiko mozio baten ondoriozkoa da; mozio horretan, Bizkaiko hezkuntza mailako kultur egokitzapenik eza aipatzen zen. Eskola horietako gehienek beste erabilera batzuk dituzte orain: liburutegiak, txokoak, etab. Gainerakoen kasuan bezala, inguruko paisaiari egokituriko estiloa dauka eta, gaur egun, taberna bat dago bertan.





### **Artadi kantabriarra**

Artadia klima mediterraneoko basoa da, eta Kantauri itsasoaren ondoan eratzen da, lurzorua oso lehorra delako. Kareharrizko lur-azpiak ez du urik atxikitzen, hori landareen sustriak baino beherago iragazten baita. Artearekin batera beste espezie batzuk ere badaude, adibidez, ereinotza, endalaharra, txorbeltza, gartxua, basoko arrosa, legeltxorra, etab.



---

### **Paisaia**

Baselizatik ikusten den paisaia paregabea da. Itsasadarraren nahiz paduraren eta Izaro uhartearen ikuspegiak aintzat hartuta, ibilbidea egiteak sobera merezi du.



---

### **Dantzaleku**

Dantzaleku bidegurutzea da eta, bertan, hiru harri handi daude etzanda. Tradizioak dioenez, bertan akelarreak egiten ziren. San Pedron bedeinkaturiko ura ere bertan banatzen zen, eta hori, gero, uzta eta arrantza ona eskatzeko erabiltzen zen, soroetan eta arrantza-ontzien bizkarrean hedatuta, gauza baterako edo besterako izatearen arabera.

---

## **EKIPAMENDUAK**

### **Haurren jolasak**

Antzinako eskolen ondoan haurren jolasak daude.



### **Aparkalekua**

Akordako plazan aparkalekurako zonatxoa dago. Nolanahi ere, auzo txiki hauetan ez dago aparkatzeko arazorik.

## ZERBITZUAK

### Ostatuak

Urdaibaiko ostatu nagusiak landetxeak eta nekazaritza-turismoak dira, zalantzarik gabe. Hurbilenekoak Ibarrangelun (Arboliz eta Etxetxu) eta Ereñon (Endeitxe) daude, baina eskaintza oso zabala da.

---

### Tabernak eta jatetxeak

Ibilbidearen hasieran Akorda taberna dago, izen bereko auzoan.

---

## OHARRAK

Igoera hau PR-BI 161 ibilbidearen barrukoa da; 9 km inguruko ibilbidea da eta horren zatirik erakargarrienetarikoa bat aukeratu dugu. Fitxa honetan jasotako datuak zati horri buruzkoak dira (joana). Ibilbidearen barruan interes handiko beste zati bat dago. Kanala auzotik Atxarreko gailurrerako igoera da, eta Kanalara garraibide publikoan joan daiteke. Bidea hondartzetan sartzeko errepidean hasten da, Kanala taberna-jatetxearen ondoan. Learretako baserrien ondotik igarotakoan, ezkerretara hartuko dugu San Martin baselizaraino. Gorantz jarraitu eta, goren dagoen baserrira iritsi baino lehen, ezkerreko bidezidorra hartuko dugu, hormarekiko paralelo joanez. Ez dugu utziko artadia zeharkatzen duen bidezidorra, eta bigarren mailako bidegurutze batzuei ez diegu kasurik egingo. Ordu erdi inguru gorantz egin ondoren, bidezidorrak Akordatik Atxarreko San Pedrorako ibilbidearekin bat egiten du. Izan ere, bi bideek bat egiten dute azken zatian. Merezi du 45 minutu inguruko igoera labur hau egiteak.